

PUBLIZITATEA NON?

Amnesty International-eko iragarki bat azaltzen da, eta bertan gizon batek “Justicia para Miriam López” esaldia margotzen du pantailan.

Kike (OFF ahotsa): Informazioaren garai honetan, mota guztietako kanpainak antolatzen dituzte gure atenzioa bereganatzeko. Dela gure kontzientziario maila igotzeko...

Deskribapena: *Pull&Bear* arropa markaren iragarkiaren atal bat agertzen da, eta, bertan hiru gazte azaltzen dira, zutik, kamerari begira: bi mutil ezker eta eskuinean, bakoitza pilota batekin malabarismoak egiten, eta, neska bat bien artean. Ondoren, hiru gazteak hondartzan daude, bakoitza surf-ohol baten aurrean.

Kike (OFF ahotsa): ... dela marka zehatz baten arropa erosteko.

Deskribapena: Segidan, Etxepare Institutuak euskararen alde egindako iragarkia azaltzen da, eta, bertan neska bat ikusten dugu olatuen artean surfa egiten. Ondoren, zenbait pertsona ikusten ditugu, bata bestearen jarraian, bakoitzak surf-ohol bat eskuan eta kamerari begira.

Lehena neska bat da, eta, “HANDIA SAKONA” esaten du. Surf-oholean “ALTO INTENSO” hitzak margotuta azaltzen dira.

Bigarrena neska bat da, eta, “SEKULAKOA” hitza esaten du barre egiten duen bitartean. Surf-oholean “IMPRESIONANTE” hitza ikusten dugu.

Hirugarrena gizon bat da, eta, “BATZEN GAITUENA” esaten du. Bere surf oholean “WAT ONS VERENIG” hitzak azaltzen dira.

Laugarrena mutil bat da, eta, “GUZTIOK BATZEN GAITUENA” esaten du bere surf oholean “EUSKARA MUNDURA” hitzak azaltzen diren bitartean.

Kike (OFF): Euskara sustatu eta bultzatzeko gure hizkuntzaren aldeko hainbat kanpaina ere egin dira.

Deskribapena: Donostiako Udalaren iragarkia azaltzen da. Bertan, emakume heldu bat eta ume bat agertzen dira. Bakoitzak pankarta bat du eskuartean, komikietan agertzen diren bunbuilo edo puxika formakoak. Emakume helduaren pankartan “Garai batean ez zen egiten” esaldia dago idatzita; eta, umearen pankartan aldiz, “Gaur egun egiten dugu” esaldia.

Jarraian beste emakume bat azaltzen da, “Nik beti egiten dut” esaldia daraman pankarta ezkerreko eskuan duela.

Segidan, emakume bat bere mugikorrarekin azaltzen da dei bat egiten, “Saiatu egingo naiz” esaldia daraman pankartarekin. Deia egitean ahots batek erantzuten du: “Donostiako Udala bai esan?”.

Ondoren, emakume bat azaltzen da, honakoa esanez: “Lehen hitza udalean ere, euskaraz”.

Pertsona multzo bat azaltzen da, koloredun pankarta txiki askorekin honako esaldia osatuz: “Udalean ere, euskaraz”. Ondoren, irudi bat azaltzen da lelo berarekin: “Udalean ere, euskaraz”.

Segidan, beste iragarki bat azaltzen da, Eusko Jaurlaritzaren *Poziktibity* kanpainaren iragarkia. Bertan, Imanol Agirretxe eta Aritz Aduriz futbolariak azaltzen dira mahai-futboleko jolastean. Ondoren, bi jokalariak eserita ikusten ditugu, bata bestearekin hitz egiten:

Imanol Agirretxe: “Eta hori da polita, etortzea ba bueno entrenamenduetara eta hori eta bueno umeak euskaraz gerturatzea guregana eta ikustea ba bueno euskaraz egiten dugula eta euskaldunak garela, gure hizkuntza da orduan, zeba ez dugu erabiliko eta...”

Aritz Aduriz: “Bai.”

Deskribapena: Bi jokalarien gainean “#poziktibity” hitza azaltzen da hondo hori baten gainean, ahots batek “POZIKTIBITY” esaten duen bitartean. Iragarkia bukatu baino lehen, hitza aldatu egiten da, “www.poziktibity.com” osatuz.